BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2292

EBAZPENA, 2013ko apirilaren 24koa, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordearena; honen bidez, 2013. urterako udal-mapa paperean egiteko diru-laguntzak ematea ebazten da, eta hori argitara ematen da.

GERTAKARIAK

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko urriaren 31ko Aginduaren bidez (2012ko azaroaren 14ko EHAA, 220. zk.), udal-mapak paperean egiteko diru-laguntza ematea arautzen da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Organo honek eskatutako diru-laguntzak onartzeko edo ukatzeko eskumena dauka, 2012ko urriaren 31ko Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Emandako diru-laguntzen kopurua agindu arautzailearen 5. artikuluaren arabera kalkulatu da; artikulu horretan bildutako formulak erabili dira, eman beharreko diru-laguntzen gehienezko kopurua kalkulatzeko.

3.– Aipatutako aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, agindu horretako 6. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideak ikusita, eta kasurako eratutako balorazio-epaimahaiak egindako emateko proposamena aztertu ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean aipatzen diren udalei udal-mapak paperean egiteko diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– II. eranskinean jasotako diru-laguntzak atzera botatzea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Diru-laguntzei dagokien lanetako gehienezko epeak aipatuta daude 2012ko urriaren 31ko Aginduaren 8.2 artikuluan.

Laugarrena.– Diru-laguntzaren ordainketa Aginduaren 9. artikuluan ezartzen diren epe eta baldintzetan egitea.

Bosgarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, guztiek horren berri izan dezaten, betiere, hargatik eragotzi gabe eskatzaile bakoitzari berariaz egingo zaion jakinarazpena.

Administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, ebazpen hau jakinarazpen biharamunetik, hilabeteko epearen barruan, hori guztia Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 24a.

Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MIREN IZASKUN IRIARTE IRURETA.

I. ERANSKINA

MAPA TOPONIMIKOAK PAPEREAN EGITEKO DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN ERAKUNDEN ZERRENDA

Erakunde eskatzailea	Azalera (km²)	Zenbatekoa (€)
Arratzu	10,30	10.000,00
Atxondo	23,20	10.000,00
Azpeitia	69,40	11.313,33
Basauri	7,00	10.000,00
Bedia	16,50	10.000,00
Bilbao	41,30	10.376,67
Derio	7,40	10.000,00
Ereño	10,70	10.000,00
Eskoriatza	40,40	10.346,67
Etxebarria	17,80	10.000,00
Galdakao	31,70	10.056,67
Hernani	39,80	10.326,67
Hondarribia	28,60	10.000,00
Idiazabal	29,50	10.000,00
Lantaron	61,80	11.060,00
Lasarte-Oria	6,00	10.000,00
Legazpi	41,80	10.393,33
Lemoa	15,90	10.000,00
Vitoria-Gasteiz	276,80	12.000,00
Zigoitia	102,10	12.000,00
	Guztira	207.873,34

II. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN ERAKUNDEN ZERRENDA

Erakunde eskatzailea	Diru-laguntza ukatzeko arrazoia	Artikulua
Donostia-San Sebastián	Epez kanpoko eskaera	4.1
Leioa	Gutxieneko antzinatasuna ez betetzea	1.2